

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Ikus-entzunezko kultura

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

CULTURA AUDIOVISUAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Aukera bakoitzak (A edo B) bi atal ditu (1 eta 2).
Atal bakoitzari gehienez 5 puntu emango zaizkio 10etik.

Arretaz begiratu irudiei, eta adi-adi irakurri proposatzen diren ariketak.
Saia zaitetz lehen atalean ahal den argien erantzuten, planteamendu bakoitzean ezarritako jarraibideak ahaztu gabe.

Bigarren atalerako, erabil itzazu marrazteko papera eta eskura daukazu edozein elementu grafiko (arkatzak, errotuladoreak, pinturak...). **Ez ahaztu kodea orri horretan ere jartzea.** Bozetoak azterketa-orri ofizialean egin ditzakezu.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Cada opción (A o B) consta de dos partes (1 y 2)
La puntuación máxima en cada una de ellas es de 5 puntos sobre 10.

Observa detenidamente las imágenes y lee con atención los ejercicios propuestos.
Procura contestar a la primera parte con la mayor claridad posible, sin olvidar las pautas marcadas en cada planteamiento.

Utiliza para la segunda parte papel de dibujo y cualquier elemento gráfico del que dispongas (lápices, rotuladores, pinturas, tintas...). **No olvides escribir el código también en esta hoja.** Puedes hacer bocetos en el papel oficial de examen.



A AUKERA

1. Egin iruzkin bat hurrengo orrialdeko argazkiei buruz. HENRI CARTIER-BRESSON frantziar argazkilariarenak dira biak.

- Konparatu argazki horien ezaugarri formalak eta konposizio-ezaugarriak; azaldu zer alderdi komun dituzten eta zertan bereizten diren bata bestetik.
- Aztertu irudikapena, kontuan hartuta nola erabili dituen egileak baliabide teknikoak.
- Interpretatu irudiak, atzeman dituzun espresio-balioak eta balio semantikoak oinarritzat hartuz.

2. Iruzkindu berri duzun irudietako bat erabiliz, marraztu narrazio grafiko labur bat.

- Garrantzitsua da, orrialdea antolatzeko orduan, espazioaren antolamendua eta egituratzen duzun denbora-sekuentzia bat etortzea sortzen duzun narrazioaren zentzuarekin.
- Oso balorazio positiboa emango zaie formatu-aukeraketa zaintzeari, plano motak, ikuspegiak eta abar aldatzeari eta narrazio-eritmo bat sortzeari.
- DIN A4 formatua gainditu gabe, marraztu bost bineta gutxienez. Eskura duzun edozein baliabide grafiko erabil dezakezu.

OPCIÓN A

1. Comenta las fotografías adjuntas. Ambas fueron tomadas por el fotógrafo francés HENRI CARTIER-BRESSON.

- Compara las características formales y compositivas de estas fotografías; explica qué aspectos tienen en común y en qué se diferencian.
- Analiza la representación considerando el uso que en cada caso el autor haya podido hacer de los recursos técnicos.
- Interpreta las imágenes basándote en los valores expresivos y semánticos que hayas observado.

2. Dibuja una pequeña narración gráfica que incluya una de las imágenes que acabas de comentar.

- Es importante que elabores la página de modo que la organización del espacio y la secuencia temporal que estructures se correspondan con el sentido de la narración que construyas.
- Se valorará muy positivamente el cuidado en la elección de formatos, la variedad de tipos de plano, puntos de vista... así como la creación de un ritmo narrativo.
- Sin sobrepasar el formato DIN A 4 dibuja un mínimo de cinco viñetas. Puedes utilizar cualquier recurso gráfico del que dispongas.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA


PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

CULTURA AUDIOVISUAL



HENRI CARTIER-BRESSON, Hyères, Frantzia / Francia, 1932



*HENRI CARTIER-BRESSON, Sifnos uhartea, Zikladeak, Grezia
Isla de Sifnos, Cyclades, Grecia, 1961*



B AUKERA

1. Egin iruzkin bat hurrengo orrialdeko narrazio grafikoaren pasarte horri buruz. *Building Stories* lanetik hartuta dago (CHRIS WARE, 2012).

- Azaldu ezazu nola dagoen eraikita narrazioa.
- Identifika itzazu baliabide formalak: orrialdeen antolamendua, egitura narratiboa, erlazio espazio-tenporalak, bineten ezaugarriak, komikiaren berezko elementu grafikoaren erabilera, eta beste edozein xehetasun, baldin eta aukera ematen badu egileak kontatu nahi zuen istorioa nola egituratu duen deskribatzeko.
- Interpretatu ezazu narrazioa, haren balio adierazkor eta semantikoak oinarritzat hartuta.

2. Marraztu zazpi bineta, gutxienez, iruzkindu duzun orrialdean hasitako sekuentzietako edozeini jarraipena emateko.

- Garrantzitsua da espazioaren antolamendua eta egituratzen duzun denbora-sekuentzia bat etortzea sortzen duzun narrazioaren zentzuarekin.
- Oso balorazio positiboa emango zaie formatu-aukeraketa zaintzeari, plano motak, ikuspegiak eta abar aldatzeari eta narrazio-erritmo bat sortzeari.



OPCION B

1. Comenta el siguiente fragmento de narración gráfica, tomado de *Building Stories*, CHRIS WARE, 2012.

- Explica cómo está construida la narración.
- Identifica y comenta los recursos formales: la organización de la página, la estructura narrativa, las relaciones espacio temporales, las características de las viñetas, el uso de elementos propios del comic, y cualquier otra peculiaridad que permita valorar cómo ha estructurado el autor la historia que quería contar.
- Interpreta la narración basándote en los valores expresivos y semánticos que hayas observado.

2. Dibuja un mínimo de siete viñetas que continúen cualquiera de las secuencias iniciadas en la página que has comentado.


- Es importante que la organización del espacio y la secuencia temporal que estructuras se correspondan con el sentido de la narración que construyas.
- Se valorará muy positivamente el cuidado en la elección de formatos, la variedad de tipos de plano, puntos de vista... así como la creación de un ritmo narrativo.



AND SO.



And so, on the first warm day of our New Year...



THUS.





CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

A AUKERA

1. Irudi-iruzkina	5 puntu
<p>Aztertze gaitasuna izatea, alderdi hauek balioetsiz:</p> <ul style="list-style-type: none">• Irudikapenaren forma- eta konposizio-alderdiei behatzea.• Konfigurazioan erabilitako baliabide teknikoak identifikatzea. <p>Iruzkinean kontuan hartu behar dira irudiaren zenbait alderdi; besteak beste, formatua, laukiratzea, plano mota, ikuspuntua, argia, gardentasuna (eremu-sakontasuna), denboraren irudikapena / mugimendua...</p>	2,5 puntu
<p>Irudiaren ulermen semantikoa.</p> <p>Alderdi hauek balioetsiko dira: irudiaren dimentsio sinbolikoa eta haren balio adierazgarriak ezagutzeko gaitasuna, eta balio horiek irizpide pertsonalen arabera interpretatzea —irizpide horiek aurrez egindako analisiarekiko koherenteak izan behar dute—. Halaber, zenbait arlotako —artearen historia, argazki-dokumentala, publizitatea, zinema, bideo-jokoak eta abar— hizkerak identifikatzea balioetsiko da.</p>	2,5 puntu

2. Narrazio grafikoaren ariketa	5 puntu
<p>Proposamena betetzea:</p> <p>Gutxien zazpi binetako lana egitea, ariketaren planteamendua oinarri duen argumentu txiki bat garatzen duena. Garrantzitsua da narrazio-proposamen argi bat izatea, elementu plastikoen garapena bideratuko duen ideia original bat, alegia.</p>	1,5 puntu
<p>Espazioa adierazteko baliabideen aberastasuna: plano, ikuspuntu, laukiratze edo formatu bat baino gehiago erabiltzea. Halaber, kontuan hartuko da orrialdea irudikapen-espazio gisa aprobetxatzea.</p>	2 puntu
<p>Denbora-egitura: narrazio-erritmo argumentuarekiko koherente bat ezarriko duen sekuentzia bat egitea. Oso balorazio positiboa emango zaio erritmoa sortzen laguntzen duten estrategiak erabiltzeari.</p>	1,5 puntu



**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

B AUKERA

1. Narrazio grafikoaren iruzkina	5 puntu
Aztertze gaitasuna izatea, alderdi hauek balioetsiz: <ul style="list-style-type: none">• Binetak aztertzea: laukiratzea, ikuspuntuak, planoak, argia, komikiaren berezko elementu grafikoak eta abar balioestea.• Narrazio-egitura identifikatzea: baliabideek erritmo-sortzaile gisa duten balioari erreparatzea (formatuak aldatzea eta orrian antolatzea, eta denbora-balioak sartzen lagunduko duen beste edozein elementu grafiko).	1,25 puntu 1,25 puntu
Ulermen semantikoa: Kontakizuna eraikuntza gisa ulertzeari emango zaio garrantzia, kontatzen den ekintzarekin dituen desberdintasunak kontuan harturik. Narrazioa behatutako adierazpen-balioetatik eta izan lezakeen dimentsio sinbolikotik interpretatzea.	2,5 puntu
2. Narrazio grafikoaren ariketa	5 puntu
Proposamena betetzea: Gutxienez bost binetako lana egitea, ariketaren planteamendua oinarri duen argumentu txiki bat garatzen duena. Garrantzitsua da narrazio-proposamen argi bat izatea, elementu plastikoaren garapena bideratuko duen ideia original bat, alegia.	1,5 puntu
Espazioa adierazteko baliabideen aberastasuna: plano, ikuspuntu, laukiratze edo formatu bat baino gehiago erabiltzea. Halaber, kontuan hartuko da orrialdea irudikapen-espazio gisa aprobetxatzea.	2 puntu
Denbora-egitura: argumentuarekin koherente den narrazio-erritmo bat ezarriko duen sekuentzia bat egitea. Oso balioespen positiboa emango zaio erritmoa sortzen laguntzen duten estrategiak erabiltzeari.	1,5 puntu